



2016eko OTSAILAREN 16ko BILKURAKO AKTA

Bilkura: Ohikoa

Eguna: 2016/02/16

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Ane Garmendia Gorostidi. Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria. Zinegotzia

Luis Lopez Garcia Uceda. Zinegotzia

Mikel Telleria Irastorza. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

Gai zerrenda

- 1- 2016-01-19ko Bilkurako akta onartzea.
- 2- Josu Albisuren lizentzi eskaera
- 3- Baliarraingo udalaren administrazio elektronikoaren zenbait alderdi arautzen dituen ordenantzari haserako onarpena ematea.
- 4- 2016eko udaleko lanpostuen zerrenda eta plantilla organikoari haserako onarpena ematea.
- 5- Alkatearen ebazpenen berri ematea.
- 6- Hainbat ordainketa onartzea.
- 7- Norberak lekarkeenak.

1.-2016eko URTARRILAREN 19ko BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2016-01-19ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira. Hainbat zuzenketa egin ostean onartutzat eman da.

2.-JOSU ALBISUREN LIZENTZI ESKAERA

Josu Albisu jaunak, egur pila babesteko burnizko estalia egin nahi duela eta udal honetan eskaera aurkeztu du 2016eko urtarrilaren 26ean. Indarrean dauden arau subsidiarioetan, Josu Albisuren partzelan eraikitze eskubide osoa agortua du, arauak esaten duten azalera osoa okupatua duelako.

Arau Subsidiarioen 52.a artikuluan, erabilera pribatuko espazio ez eraikiak sestra gainean, lanabesak gordetzeko kutxa zarrak bakarrik baimenduko direla esaten da.



Egur pila gordetzeko burnizko estalia egitea bolumen bat eraikitzea da eta arau subsidiarioetan onartzen den eraikigarritasuna gainditzea dakar, eta ondorioz araua haustea.

Beraz, gaur egun indarrean dauden arau subsidiarioen arabera eskaera ez da onargarria.

3.-BALIARRAINGO UDALAREN ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZARI HASERAKO ONARPENA EMATEA.

Baliarraingo udalak administrazio elektronikoaren erabilera arautzeko udal ordenantza eratu du onarpena emateko.

Ordenantzari onarpena emateko jarraitu beharreko urratsak hauek dira:

- Ordenantzari haserako onarpena ematea.
- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea hilabeteko epean.
- Jendaurreko epea iragan eta alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta eman daiteke, onarpen berria eman beharrik gabe.
- Eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denetik indarrean hasten da.

Mahaikideek aho batez ERABAKI DUTE:

Bat- Baliarraingo udalaren administrazio elektronikoaren zenbait alderdi arautzen duen ordenantzari haserako onarpen ematea.

Bi- Hilabeteko epealdian jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara emanez.

Hiru- Jendaurreko denboraldian alegaziorik tarteratu ezean, behin betikotzat onartuta emango da, onarpen berrik eman gabe.

Lau- Ordenantzaren behin betiko argitalpena egitea, jendaurreko epea iragan ostean.

4.-2016eko UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDA ETA PLANTILA ORGANIKOARI HASERAKO ONARPENA EMATEA.

2016EKO PLANTILLA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK



<i>Lanpostuaren izena</i>	<i>Lanpost.kop.</i>	<i>Taldea 6/89 Legea 43 art.</i>	<i>Egoera</i>
Izaera Nazionaleko gaikuntza eskala			
Idazkari Kontuhartzailea	1	A	Jabetzan

PERTSONAL LABORALENTZAKO GORDETAKO LANPOSTUAK

<i>Lanpostuaren izena</i>	<i>Lanpost.kop.</i>	<i>Taldea 6/89 Legea 43 art.</i>	<i>Egoera</i>
Administrazio Orokorra eskala	1	D	Finkoa
Administrari Laguntzailea	1	B	Behin Behinekoa
Gizarte Langilea			
Administrazio bereziko eskala	1	D	Behin behinekoa
Eginkizun anitzetako langil.	1	E	Behin behinekoa
Etxez etxeko langilea			

2016EKO LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

<i>Ord. Zk.</i>	<i>Izena</i>	<i>Lan p. Kop.</i>	<i>Taldea</i>	<i>Hornitze era</i>	<i>Ordainketa osag.</i>		<i>Dedik.</i>	<i>Buleg.</i>	<i>Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak</i>					
					<i>Dest. Osakin. maila</i>	<i>Osagarri espez.</i>			<i>Adskripzioa</i>			<i>Hizkuntza eskakiz.</i>		
									<i>Taldea</i>	<i>Azpi- eskala</i>	<i>Klas</i>	<i>Koefizite.</i>	<i>Agind. data</i>	<i>Exij. Titul.</i>
1	Idazkari Kontuhartzailea	1	A	L	18	5.507,04	%25	ID	HN	IK	3	4	96-06-30	liz

Pertsonal laboralentzako gordetako lanpostuak

<i>Ord.</i>	<i>Izena</i>	<i>Lan p.</i>	<i>Taldea</i>	<i>Hornitze.</i>	<i>Ordainketa osag.</i>	<i>Dedik.</i>	<i>Buleg.</i>	<i>Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak</i>
-------------	--------------	---------------	---------------	------------------	-------------------------	---------------	---------------	--



Zk.		Kop.		era	Dest. Osakin. maila	Osagarri espez.			Adskripzioa			Hizkuntza eskakiz.		
									Talde Eskal.	Azpi-eskala	Klas	Koefizie.	Agind. data	Exij. Titul.
2	Administrari Laguntzailea	1	D		9	7.371,42	%50	Ad.				3	96-06-30	FP1

Behin behineko pertsonal laboralentzako gordetako lanpostuak

Ord. Zk.	Izena	Lanp. Kop.	Taldea	Hornitze. era	Ordainketa osag.		Dedik.	Buleg.	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak					
					Dest. Osakin. maila	Osagarri espez.			Adskripzioa			Hizkuntza eskakiz.		
									Talde Eskal.	Azpi-eskala	Klas	Koefizie.	Agind. data	Exij. Titul.
4	Etxez etxeko langilea	1	E		8	6661,76	%90	Ad.				2	96-01-01	Grad Esko
5	Gizarte Langilea	1	B		14	983,22	%8,9	Ad.				3	07-11-05	Dip.
6	Eginkizun anizteko langilea	1	E		5		%20	Ad.				2	96-05-01	FP1

5.-ALKATEAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Bat .-MAPA MUNIZIPALA REN INGURUKOA



ALKATEAREN EBAZPENA .

BALIARRAINGO MAPA MUNIZIPALA DIGITALEAN EGITEKO ESLEIPENA

Ikusirik , 2015eko uztailaren 7ko EHAAn 2015eko ekainaren 19ko Agindua argitara eman zela , informazio geografikoa hobetzeko eta udal mapaka egiteko diru laguntza ematearena .

Ikusirik , 2015eko urriaren 20ean luzatutako ebazpenean , Baliarraingo udalari , 5.915,73 eurotako laguntza onartu zaiola

Ikusirik , lan hau egitea ezinbestekoa zaigula, eta honetarako harremanetan JB Topografia etxearekin jarri dela . Eta lan hau burutzeko aurrekontua , beza kanpo 8050,00 eurotako aurkeztu duela , P-15046 aurrekontuaren arabera .

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

ERABAKI DU

Lehena.-Baliarraingo mapa munizipala era digitalean egiteko 2015eko ekainaren 19ko aginduaren arabera .JB Topografia etxeari esleitzea

Bigarrena.-Lanak burutu eta entregatzeko data , esleipena jakinarazten denetik hasita bost hilabetekoa izatea .

Hirugarrena .-Hurrengo Osoko Bilkurari erabakiaren berri ematea .Eta JB topografiari jakinaraztea.

Baliarrainen , 2015eko abenduaren 15ean .

Alkateak



Bi.-Pilotalekuaren erabileraren ingurukoa

ALKATEAREN EBAZPENA

Pilotalekua erabiltzeko baimena

Baliarraingo udalean, 2016eko urtarrilaren 26ean, Miren Garmendiak Herri txikietako futbol torneoko ordezkari moduan luzatutako idazkiari sarrera eman zaio. Idatzi honetan, 2016-01-29an, herri txikietako futbol torneoan dabiltzan haurrak pilotalekua erabiltzeko lehentasuna izateko eskaera luzatzen da.



Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

EBAZTEN DUT:

Lehen.- Herri txikietako futbol torneoan dabiltzaten hurrei, 2016-01-29an arratsaldean pilotalekua erabiltzeko lehentasuna izateko baimena onartzea.

Baliarrainen , 2016ko urtarrilaren 26ean.

Alkateak

Idazkariak

Hiru.-Tolosaldea garatzen iae ren ingurukoa onartzea

ALKATEAREN EBAZPENA .

TOLOSALDEA GARATZENI IAE ZERGAREN %10EKO EKARPENA EMATEA ONARTZEA

Ikusirik, Tolosaldea garatzenen diru sarreretako iturri bat IAE zergaren %10eko udalen ekarpena dela .

Ikusirik, Baliarraingo udalak IAE zergaren inguruan ezer ez du jasotzen . Halere, udal guztiek ekarpena egitea egokia ikusi zen. Horregatik, eskualdeko zenbait udalen artean egindako bilkuran erabaki zuten , 2015 urteari dagokionez , 500 eurotako ekarpena egitea .

Apirilaren 2ko 7/1985 ELO Lege Arautzaileak eta apirilaren 18ko 781/1986 E.D. Legegileak xedatzen dituen eskuduntzak aintzakotzat hartuz.

ERABAKI DU

Lehen.-Baliarraingo udalak, 2015 urteari dagokionez, 500 euroko ekarpena egitea, Tolosaldea garatzen iae zergaren %10eko kontzeptuan.

Bigarrena.-Hurrengo Osoko Bilkurari erabakiaren berri ematea .

Baliarrainen , 2015eko abenduaren 22ean .

Alkateak

Mahaikideek, Alkatearen ebazpenen berri jakin eta ontzat eman ditu.

6.-HAINBAT ORDAINKETA ONARTZEA.

Jarraian aipatzen diren ordainketak onartu dira:

TITULARRA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
AIZKORPE ELEKTRIKARIAK	KALDERA GELAKO DIFERENTZIALAK KONPONTZEA	539,04 €



AIZKORPE ELEKTRIKARIAK	UDAL ETXEBIZITZAKO TELEBISTA ANTENAREN KONPONKETA	72,60 €
PEÑASCAL KOOPERATIBA (TOLOSAKO UDALA)	2015EKO GASTUAREN ORDAINKETA	14,74 €
GEURIA CARPINTERIA DE ALUMINIO	HARKAITZ ELKARTEKO LEIHOA KONONTZEA	320,65 €
M. URANGA S.L.	OSTATUKO ESTRAKTOREAREN ERREPARAZIOA	900,24 €
ATISAE	IGOGAILUAREN INSPEKZIOA	179,30 €
BABESA SUZAI	UDALETXE ZAHAR, UDALETXE BERRI HAURRESKOLA ETA BEHEKO LOKALETAKO ITZALGAILUAK	877,13 €
HIRUSTA KOLEKTIBOA	ALEGIAKO ESKOLAN HEZIKETA AFEKTIBO SEXUALAREN IKASTAROA 2015/2016 IKASTURTEA	25,97 €
TOLOMENDI	IKT DINAMIZAZIO ETA AHOLKUARITZA LANA. URTARRILA	152,50 €
GARAIKO PRODUKZIO KORPORATIBOA	2016KO EGUTEGIAK	490,41 €
BODEGON BENTA ALDEA, S.L.	AGINALDOAK	399,30 €
GRAFICAS YURREAMENDI S.L.	HAUTESKUNDE LOKALETARAKO PAPELETAK ETA SOBREAK	266,20 €
ESTITU GAZTAÑAGA PETISCO	DANTZA IKASTAROA	90,00 €
ANE ARTUTXA DORRONSORO	MUSIKA IKASTAROA	54,00 €
TOLOMENDI		150,00 €
AMAIA ITNTXAURBURU CLEMENTE	GITARRA IKASTAROA	54,00 €
MIKEL MUÑAGORRI LASA	INGELES IKASTAROA	100,00 €
MIKEL MUÑAGORRI LASA	INGELES IKASTAROA	75,00 €

7.-NORBERAK LEKARKEENAK.

Bat- Ostatuko egoera azaltzen da eta beraiekin bilera egiteko geratu da.

Bi- Alkateak Uemako ordezkariarekin izandako bileraren laburpena egiten du. Beraien eginkizun nagusia udalak euskara hutsean funtzionatzea bermatzea dela, eta bestetik, udalerriko merkataritza ere euskaraz funtzionatzeko ahalegina egitea dela.

Uemak emandako dokumentazioa aztertzeke geratu da, eta aurrerantzean berriro bilera bat egitea.

Hiru- Hirigintza batzordea ere berriro bildu behar dela dio alkateak eta otsailaren 23an biltzeko ordua adosteko geratu da.

Lau- Mikel Telleriak dio, Googleetik Baliarrainera zuzentzen zuen bideetako bat baztertu duela, izanez ere ibilgailuz iristekoa ez zelako.

Eta besterik ezean, gaueko 20:30etan bilera amaitutzat eman zuen alkateak.

Alkateak

Idazkariak